

DBH3 MATematika: "Zaku bete letra eta zenbaki, mila galdera-erantzun" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Polinomioak laburtu eta osatu eragiketen propietateak baliatuz eta haiekin oinarritzko eragiketak egin, zuzentze-prozesuari behar duen arreta eta garrantzia eskainita.</p>	<p>1.1. Monomioen ezaugarriak eta osagaiak identifikatu ditu (koefizientea, zati literala, maila...) eta haien arteko eragiketa aljebraikoak burutzen ditu.</p> <p>1.2. Polinomioak laburtu, ordenatu eta sailkatzeko gai da (osoa, ez-osoa).</p> <p>1.3. Adierazpen aljebraikoak garatu eta sinplifikatu ditu propietate egokiak baliatuz: banatze, elkartze eta trukitze propietateak.</p> <p>1.4. Polinomioen arteko eragiketa aljebraikoak ondo burutzen ditu: batuketa, kenketa, biderketa (identitate nabarmenak) eta zatiketa (metodo orokorra eta Ruffiniren erregelak)</p> <p>1.5. Polinomioekin loturiko problemak eta egoerak modelizatu, garatu eta ebatzi ditu, eta horretarako, egoeraren aldagaiak identifikatu eta haien arteko erlazioak bilatu ditu.</p>
<p>2. Bi magnitudeen arteko erlazio zehatzak funtzioen bidez adierazi eta adierazpen moldeen arteko eraldaketak egin.</p>	<p>2.1. Lehenengo mailako ekuazioak ebatzi ditu.</p> <p>2.2. Ekuazioen bitartez adierazi daitezkeen problemak modelizatu eta ebatzi ditu.</p> <p>2.3. Bi puntu emanda zuzen baten adierazpen aljebraikoa zuzen kalkulatu eta grafikoki adierazten du.</p> <p>2.4. Zuzen baten malda (m) eta jatorriko ordenatua (b) identifikatzen eta kalkulatu ditu.</p> <p>2.5. Bi magnitudeen arteko erlazio funtzionalak identifikatu ditu eta zuzenen bidez adieraz daitezkeen erlazioak bereizi eta sailkatu ditu, erabakia justifikatuz.</p> <p>2.6. Zuzenen adierazpen molde desberdinen artean (testuala, grafikoa, aljebraikoa eta taula bidezkoa) eraldaketak egin ditu eta ezaugarrien arabera deskribatu eta interpretatu ditu: funtzio mota, malda, ordenatu jatorria, hazkundea, eremua eta ibilbidea.</p> <p>2.7. Eguneroko bizitzarekin erlazioan dutako erlazio funtzionalak interpretatu eta eraldatu ditu eta haietatik informazio berria lortu du.</p>
<p>3. Problema ebazteko urratsetan modeloen erabilgarritasuna balioetsi, eta, modelo egokiak baliatuz, beste zientzietako erlazioak interpretatu eta kontaktarekin lotutako galdera zehatzei erantzun, haien ongarritasuna balioetsita.</p>	<p>3.1. Egoera errealean problemaren ebazpenaren urratsak identifikatu eta adierazi ditu.</p> <p>3.2. Eguneroko bizitzarekin erlazioan dutako erlazio funtzionalak interpretatu eta eraldatu ditu eta haietatik informazio berria lortu du.</p> <p>3.3. Kontaktarekin erlazioan dutako egoerak modelizatu ditu eta problema ebatzi ditu.</p>
<p>4. Norberak sortutako problema ebazteko ereduaren arabera, ekuazio eta ekuazio-sistemekin erlazioan dutako eguneroko bizitzako galderei eta zereginei aurre egin, teknika zehatzak baliatuz eta egiteko horretan irmoki jokatu.</p>	<p>4.1. Ekuazio-sistema linealak ebatzi ditu, grafikoki zein aljebraikoki ordezkatzeko, berdintze eta laburtze-metodoak erabili.</p> <p>4.2. Soluzioaren arabera sistema nolakoa den identifikatu du. Zuzenen kokapen erlatiboa identifikatu du.</p> <p>4.3. Eguneroko bizitzarekin erlazioan dutako egoerak modelizatu eta ekuazio-sistemen bitartez ebatzi ditu, problemaren ebazpenerako urratsak jarraituz.</p> <p>4.4. Software egokia erabiltzen du kalkulu aljebraikoak egiteko eta grafikoki adierazteko.</p>